

AURKEZPENA

Gu Sigi-Sagak enpresako kideak gara (Miren, Mario, Ane, Helene eta Aitziber) eta gozoki osasuntsuak ekoizten dituen enpresa bat sortzea erabaki dugu. Gure helburua haur nahiz helduek gozokiez goza dezaten da, baina noski, modu osasuntsuan. Izan ere, oso garrantzitsua da elikadura egoki eta orekatu bat izatea gure egunerokotasunean. Gozoki industrialak ordea, asko gustatzen bazaizkigu ere, ez dira osasunerako onak. Beraz, gure helburua behar hori asetzea da, osasunari kalterik egin gabe, gozokiak lasai jan ditzagun.



SIGI SAGAK

Zure konfiantzazko lagunak

Bestalde, kirolarien errendimendua bermatzeko bitaminaz hornituriko gozokiak osasuntsuak egingo ditugu, edari isotoniko industrialak alde batera utziz. Guzti honetarako, gozokiak azukrerik gabeak eta produktu egokologikoekin eginak izango dira eta modu naturalean ekoitziko ditugu.



